ELA EUSKAL SINDIKATUA

# ANTE ESTE ATAQUE A LOS SERVICIOS PUBLICOS Y A LOS TRABAJADORES Y LAS TRABAJADORAS DE LA ADMINISTRACIÓN DEL ESTADO, ¡RESPONDEREMOS!




Como consecuencia del Decretazo aprobado por el Gobierno español el pasado 30 de diciembre, y las medidas que se avecinan con la aprobación en los próximos meses de los presupuestos generales del estado –todo indica que serán todavía más contundentes contra las y los empleados públicos– los trabajadores y las trabajadoras de la Administración General del Estado y Correos que somos quienes soportamos las peores condiciones laborales y retributivas de todas las Administraciones Públicas, nos veremos sometidos a más recortes salariales, a más precariedad, a mayores carga de trabajo, en definitiva, a una mayor indignidad como trabajadores y trabajadoras.

Pretenden solucionar la crisis de avaricia provocada por la banca recortando, una vez más, nuestros derechos y condiciones laborales para, supuestamente, "ahorrar" millones de euros; todo ello a costa de nuestro salario y condiciones de trabajo. En resumen, todo el poder para ellos, para conseguir sus objetivos y a las y los Empleados Públicos se nos trata como mercancía de usar y tirar.

***Ahora plantean:***

- **Recorte salarial:** Pretenden convencernos que en el 2012 congelan nuestros salarios, ocultando que en la Administración Estatal las aportaciones a los paupérrimos planes de pensiones (Correos, AGE) –solo beneficia especulativamente a quienes los gestionan: Deutsche-bank, BBVA, CCOO y UGT– suponen salario diferido, es decir, dinero de los trabajadores/as. En la AGE en el 2011 se "robó" el 0,2% y como les pareció poco, este año todo. Con las últimas medidas ya se ha perdido un 15% de poder adquisitivo.

- **Tasa de reposición del 0%.** Imposibilidad de aprobar OPEs nuevas durante el año 2012. Solo se ejecutarán las ya publicadas (¿Qué pasa con las ofertas de empleo pendientes como Correos?) salvo en educación, sanidad y otros servicios considerados básicos, donde la tasa de reposición máxima será del 10%.

- **Congelación de la incorporación de personal temporal.** No se podrán realizar OPEs ni tampoco contratar trabajadores/as temporales.

- **Aplicación como mínimo de una jornada laboral efectiva de 37,5 horas en todos los ámbitos.** Desde ELA venimos reivindicando y seguiremos reivindicando para la Administración del Estado, una jornada de 35 horas semanales de lunes a viernes.

**Y en marzo con los PGE ¿qué van a plantear?**, Pretenden ahorrar, eso dicen, 40.000 millones de euros, ¡qué miedo...! No nos vamos a equivocar si decimos que las y los empleados públicos en general y los de la administración del estado en particular vamos a ser las dianas principales de nuevas y durísimas agresiones a nuestras condiciones laborales.

En mayor o menor medida seguro que van a afectar a nuestras retribuciones –pagas extras–, descuentos en los periodos de baja, régimen de Clases Pasivas, no renovación –despidos– de contratados interinos, acción social.... y privatizaciones de Empresas Públicas y servicios, todas las que puedan. Las empresas privadas hace tiempo que han visto el negocio que supone meter mano en las Administraciones Públicas y esto lo comprobamos todos los días las trabajadoras/es.

**Este Gobierno estatal,** que ha encontrado un fiel aliado en el Gobierno de Gasteiz, ha decidido que hay que reducir el gasto corriente de las administraciones y por lo visto, los servicios públicos y los trabajadores y trabajadoras de los mismos somos ese gasto corriente y la "sangría" de recortes no va a parar. Son insaciables.

Por eso nos recortan un 15% de nuestro salario, no les importa destruir servicios públicos que resultan esenciales para el conjunto de la sociedad, y de modo especial, para quienes menos recursos tienen.

## ES NECESARIO MOVILIZARSE PARA RESPONDER

## ¡NI UN PASO ATRÁS!

# ¡SÍ A LOS SERVICIOS PÚBLICOS!

## NO ES VERDAD QUE NO HAYA OTRAS ALTERNATIVAS

Hace mucho tiempo que ELA las viene reclamando. Entre otras, es necesario:

❐ **Aumentar la recaudación fiscal:** estamos 10 puntos por debajo en presión fiscal sobre la media europea. Ese diferencial supone 6.500 millones de euros menos de recaudación, que se quedan en manos privadas y no revierten en el conjunto de la sociedad. Las Diputaciones Forales tienen responsabilidad directa en este tema.

❐ **Combatir el fraude fiscal:** los trabajadores/as declaramos, como media, unos ingresos anuales de 21.000 euros, y las rentas de capital y empresariales 13.000. Es un escándalo y muestra evidente del enorme fraude fiscal existente.

❐ **Incrementar la inversión pública y social:** en la CAPV se dedica únicamente el 19% del PIB a protección social, 8 puntos menos que la media europea, lo que supone 5.400 millones de euros menos invertidos en las necesidades más básicas de la sociedad.

Es evidente que hay que tomar medidas urgentes y hacer importantes reformas, pero las instituciones vascas van en dirección contraria aplicando estas medidas.

**Exigimos al Gobierno de Madrid** que retire todas estas medidas y renuncien definitivamente a la política de recortes, dando pasos claros para consolidar y desarrollar unos servicios públicos de calidad.

Le exigimos que aplique otras políticas, dejen de lado los recortes salariales y restituyan los derechos y las condiciones de trabajo, impulsando el empleo y los servicios públicos, ya que estos son fundamentales para responder a las necesidades de la sociedad y hacer frente a la crisis.

Para ello, en lugar de aprobar unos presupuestos restrictivos, es necesario ampliar la inversión en servicios públicos y, a este respecto, es imprescindible y justo que se produzca un cambio radical en la política fiscal haciendo frente, entre otras medidas, al enorme fraude existente.

Aquí trabajamos, Aquí debemos negociar. Los trabajadores y trabajadoras de la Administración del Estado llevamos años padeciendo recortes en nuestras condiciones de trabajo. Una negociación colectiva fuertemente centralizada, ajena a nuestras condiciones de vida, fruto de la ausencia de un Marco propio de relaciones laborales y con el yugo del sindicalismo del diálogo social con un perfil nada reivindicativo, han hecho que nos encontremos en la situación actual.

Nuestras condiciones de trabajo y retributivas se deben homologar a las del Personal del Ámbito Competencial Vasco. Todas y todos los trabajadores/as de la AGE y Empresas Públicas de titularidad estatal deben de ser homologados con independencia de poder ser, o no, transferidos.

Ante los brutales recortes planteados por el Gobierno estatal, desde ELA no renunciaremos a ninguna de nuestras reivindicaciones: Marco Propio de RR.LL., procesos transferenciales pendientes, descentralización de la negociación colectiva, homologación a las condiciones de CAPV, dejar sin efecto los recortes y que nos devuelvan lo "robado", equiparación de las retribuciones del personal laboral a las y los funcionarios, recuperar el poder adquisitivo perdido, 35 horas de jornada, jubilaciones anticipadas incentivadas y contratos de relevo, OPES que garanticen unos servicios públicos de calidad, ninguna privatización más, que no se contrate a través de ETTs, sistema de formación y carrera profesional que permita una promoción real, potenciar y facilitar el conocimiento del euskera....

¡No vamos a renunciar a ni una! Este es nuestro compromiso en la Negociación Colectiva!

## NECESIDAD DE RESPUESTA

No aceptamos estas medidas ni los nuevos recortes que nos quieren imponer y exigimos que cambien sus políticas y hagan efectivas las alternativas.

En esta coyuntura, es más necesario que nunca el fortalecimiento y desarrollo de los servicios públicos, dotarlos de más y mejores recursos, garantizar unas buenas condiciones de trabajo y crear empleo público de calidad para atender a las nuevas y crecientes necesidades.

Para todo ello, es preciso que nos organicemos, fortalecer nuestra organización y capacidad de respuesta y responder de manera sostenida.

No podemos esperar a que la situación se agrave aún más y estemos como en Grecia. Debemos forzar el cambio en las políticas para no llegar a esa situación. Todos y cada una de nosotras y nosotros estamos llamados a hacerle frente y tratar de parar semejante ofensiva.

Desde ELA hacemos un llamamiento a los trabajadores y trabajadoras de la Administración del Estado. Somos el colectivo más afectado, nuestra repulsa y movilización contra quienes nos quieren someter hoy, es más imprescindible que nunca.

### Hay que movilizarse:

- 26 de enero, 18:30, manifestaciones en las capitales.
- 4 de febrero, manifestación en Bilbo, en contra de las políticas de recorte y otro modelo de sociedad con diferentes Colectivos Sociales.
- 9 de febrero, paro de 4 horas y movilizaciones en las capitales.

ELA EUSKAL SINDIKATUA

# ZERBITZU PUBLIKOEN ETA ESTATU ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN AURKAKO ERASOARI AURRE EGINGO DIOGU!




Espainiar gobernuak joaneko abenduaren 30ean onartu zuen dekretua ikusita, aurreikusten dugu hurrengo hilabeteetan Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen direnean ezarriko diren neurriak langile publikoentzako are kaltegarriagoak izango direla.

Estatuko Administrazio Nagusiko eta Posta Zerbitzuetako langileok jasaten ditugu lan- eta soldata-baldintzarik okerrenak, eta soldata-murrizketa, ezegonkortasun eta lanzama handiagoak ezarri nahi dizkigute, langile-duintasuna kendu nahi digute, azken finean.

Banketxeek sorturiko "porrota" konpontzeko, gure eskubideak eta baldintzak are gehiago murriztu nahi dituzte, eta horrekin milioika euro "aurreztuko" dituztela ziurtatzen dute; hori bai, gure soldataren eta lan-baldintzen kontura. Labur esanda, botere osoa haientzat nahi dute, euren helburuak lortzeko, eta langile publikoak erabili eta botatzeko merkantzia besterik ez gara.

**Orain, honako hau planteatzen dute:**

- **Soldata-murrizketa:** Konbentzitu nahi gaituzte 2012an soldata izozteko; baina ezkutatzen digute Estatuko Administrazioaren pentsio-plan eskasen (Posta, Estatuko Administrazioa) ekarpenekin, plan horiek kudeatzen dituztenek soilik ateratzen dutela etekina (Deutsche-bank, BBVA, CCOO eta UGT) eta soldata geroratuak direla, hau da, langileen dirutik ateratzen direla. 2011n, Estatuko Administrazio Nagusian % 0,2 "lapurtu zuten", eta gutxi iruditu zitzaienez, aurten dena lapurtu nahi dute. Azken neurriekin, erosketa-ahalmenaren % 15 galdu dugu jada.

- **Birjapen-tasa % 0 da.** 2012an ezingo dira lan-eskaintza publikoak onartu, eta dagoeneko argitaratu direnak soilik gauzatuko dira (zer gertatzen da posta zerbitzuetako gainerako lan-eskaintzekin?). Hezkuntzan, osasunean eta oinarrizko beste zerbitzuetan bakarrik gehienezko birjarpen-tasa % 10 izango da.

- **Ez da behin-behineko langilerik egongo.** Ezin da lan-eskaintza publikorik egin, ezta behin-behineko langilerik kontratatu ere.

- **Gutxienez 37,5 orduko lanaldia ezarriko da eremu guztietan.** ELAk Estatuko Administrazioan 35 orduko lanaldia aldarrikatzen du, astelehenetik ostiralera, eta hala aldarrikatzen jarraituko du.

**Eta martxoan Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituztenean, zer?**

40.000 milioi euro aurreztu nahi dituzte, hori diote behintzat. Hau beldurra!

Ziurrenik, ez ginateke oker ibiliko esango bagenu langile publikoak eta bereziki Estatuko Administrazioko langileak izango garela lan-baldintzen kontrako eraso berri horien jomuga nagusiak.

Hein batean edo bestean, aski seguru neurriek gure ordainsariei, baja-aldietako murriztapenei, klase pasiboen erregimenari, bitartetako langileen lan-kontratuak berritzeei (eta, beraz, kaleratzeei), gizarte-ekintzari… kalte egingo dietela eta enpresa eta zerbitzu publikoak ahal bezain beste pribatizatuko dituztela. Enpresa pribatuek luze daramate Administrazio Publikoetan muturra sartu nahian, negozio ona direla ikusita; langileok egunero ikusten dugun gauza da hori.

**Estatuko Gobernuak,** aliatu leiala aurkitu du Gasteizen, eta erabaki du administrazioaren gastu orokorra murriztu behar dela. Antza denez, zerbitzu publikoak eta bertako langileak gara gastu orokor hori, eta murrizketen "sarraskia" ez da geldituko, asegaitzak dira eta.

Horrela, soldataren % 15 murriztuko digute. Ez zaie inporta gizarte osoarentzako funtsezkoak diren zerbitzu publikoak hondatzea, eta baliabide gutxien dituzten langileak kaltetzea.

**MOBILIZAZIOA BEHARREZKOA DA ERANTZUTEKO**

**ATZERAPAUSORIK EZ!**

# ZERBITZU PUBLIKOAK GARATU!

## EZ DA EGIA BESTE BIDERIK EZ DAGOELA. ALTERNATIBAK BADAUDE

ELAk aspalditik eskatu izan ditu. Besteak beste, hurrengo hauek azpimarratuko ditugu:

❒ **Zerga-bilketa igotzea:** EAEko presio fiskala 10 puntu txikiagoa da Europako batez bestekoa baino. Alde horrek zera dakar; 6.500 milioi euro gutxiagoko diru-bilketa egitea. Dirutza hori sakela pribatuetan geratzen da, gizarterako onurarik ekarri gabe. Foru aldundiek erantzukizun zuzena daukate politika hauetan.

❒ **Iruzur fiskalari aurre egin:** Langileok bataz beste 21.000 euroko diru-sarrerak aitortzen ditugu urtean; kapital eta enpresako errentadunek ordea, 13.000 euro. Eskandaluzkoa da eta iruzur fiskal itzelaren adibide garbia.

❒ **Gizarte-arlorako inbertsio publikoa handitzea:** EAEn BPGaren %19 soilik bideratzen da gizarte-babesera, Europako batez bestekoa baino 8 puntu gutxiago, 5.400 milioi euro gutxiago gizartearen oinarrizko beharrizanetan inbertitzeko.

Argi dago premiazko neurriak hartu eta garrantzizko erreformak egin behar direla; baina euskal gobernuak kontrako norabidean doaz politika hauek aplikatuta.

**Madrileko Gobernuari exijitzen diogu** neurri horiek eta murrizketa-politika bertan behera utz ditzan, eta, horren ordez, kalitatezko zerbitzu publikoak egonkortu eta garatzeko pausu argiak eman ditzala.

Eskatzen diogu bestelako politikak aplikatuz, soldata-murrizketak bazter ditzala eta lan-arloko baldintzak eta eskubideak lehengora ditzan. Horrez gain, enplegua eta zerbitzu publikoak sustatzea exijitzen diogu, funtsezkoak baitira gizartearen beharrei erantzuteko eta krisiari aurre egiteko.

Horretarako, aurrekontu murriztaileak onartu beharrean, ezinbestekoa da zerbitzu publikoetan gehiago inbertitzea, eta horrekin batera, zerga-politikan erabateko aldaketa egitea, egun dugun zerga-iruzur izugarri honi aurre egiteko, besteak beste.

Hemen lan egiten dugu, eta hemen negoziatu behar dugu. Hainbat urtez, Estatuko langileok murrizketak jasan ditugu gure lan-balditzetan. Negoziazio kolektiboa erabat zentralizatuta dute, eta ez ditu gure bizi-baldintzak ezagutzen. Ez digute uzten lan-harremanetarako gune propiorik, eta aldarrikapenik gabeko gizarte-elkarrizketaren sindikalismo baten menpe gaude. Eta horregatik gaude egoera honetan.

Gure lan –eta soldata– baldintzak Euskal Administrazioko Langileen baldintzekin homologatu behar dira. Estatuko Administrazio Nagusiko eta Estatuko Enpresa Publikoetako langile guztiez ari gara, transferituak izan ala ez.

Madrilek planteatzen dituen murrizketa ikaragarrien aurrean, ELAn aldarrikapen guztiak mantenduko ditugu: Lan Harremanetarako marko propioa, egiteke dauden transferentzia-prozesuak, negoziazio kolektiboa deszentralizatzea, EAEko baldintzetara homologatzea, murrizketak bertan behera uztea eta "lapurtutakoa" itzultzea, kontratupeko langileen ordainsariak funtzionarioen ordainsariekin parekatzea, galdutako erosketa-ahalmena berreskuratzea, 35 orduko lanaldia, aurre-erretiro saritua eta errelebo-kontratuak, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzen dituzte lan-eskaintza publikoak, pribatizazio gehiagorik ez egotea, aldi baterako enpresen bitartez ez kontraturik ez egitea, benetan aurrera egiten laguntzen duten prestakuntzako eta lanbide-karrerako sistemak, euskara sustatzea… Aldarrikapen den-denak mantenduko ditugu! Horixe da negoziazio kolektiboarekin dugun konpromisoa.

## ERANTZUN BEHAR DA

Ez ditugu inposatu nahi dizkiguten neurri eta murrizketa berriak onartzen, eta politikak aldatzeko eta aukerako irtenbideak ezartzeko eskatzen diegu.

Egungoaren moduko egoera batean, zerbitzu publikoak inoiz baino gehiago indartu eta garatu behar ditugu, baliabide gehiago eman behar dizkiegu, lan-baldintza onak bermatu behar ditugu eta kalitatezko enplegu publikoa sortu behar dugu, sortzen diren behar berriak asetzeko.

Horretarako, mobilizatu beharra dugu eta gure antolakuntza eta erantzun-gaitasuna indartu, neurriz erantzun ahal izateko.

Ezin diogu egoerari okerrera egiten utzi, eta Greziaren antzera amaitu. Politikak aldarazi behar ditugu, egoera horretara ez iristeko. Denok erasoari aurre egin behar diogu, eta gelditzen saiatu.

ELAk Estatuko Administrazioetako langileei dei egiten die. Talderik kaltetuena gara, eta, horregatik, ezinbestekoa dugu mende hartu nahi gaituztenak gaitzestea eta horien kontra mobilizatzea.

### Mobilizazioa beharrezkoa da:

- Urtarrilak 26, MANIFESTAZIOAK 18:30-tan HIRIBURUETAN
- Otsailak 4, Murrizketa politiken aurka eta beste gizarte eredu baten aldeko manifestazioa Bilbon, beste Eragile Sozialekin.
- Otsailak 9 LAU ORDUKO LAN UZTEA eta MOBILIZAZIOAK HIRIBURUETAN